

## Herritarrak paralizatzen dituen katastrofismo hori

Irudi zirraragarriak erakutsiz, katastrofeak iragartzen ditugu komunikabideetatik, hizkera apokaliptikoz ekologiarentzako bezala gizadiarentzako etorkizunik ilunena heldu dela iragarritz. Baina kazetariak bezala politikoek azken aldian maite duten komunikatzeko era honek etsipena besterik ba ote dakar?

### HARTZ ZURIA IZOTZ PUSKA GAINEAN

galduta, horra klimaren aldaketaren ikur deigarria. Argazki horrekin eta planetan egun biz bat suertatzen diren hondamendienekin —uholde, zikloi, idorte...— komunikabideok urratzen dugu herritarraren azal mintza, irudiok ekologiarekiko eta ekonomia jasangarriarekiko bere konpromisoa handituko dutelakoan. Idatzizko lerroburuak tonu berean doaz: “Beroketa globalak gairitu du atzera ezin eginezko puntua”, “Hondamendi hau da klimaren aldaketaren froga bat gehiago”, “Zibilizazioaren akabera uste baino hurbilago egon daiteke” eta enparauak. Eta zer lortzen dute?

*Future Ethics* gunea animatzen duen Stefan Skrimshire irakaslea beldur da alderantzizkoa eragiten ote duten. *Curb your catastrophism* (“Kontrola ezazu zure katastrofismoa” esan genezake euskaraz) titulatu duen artikuluan dio: “Hondamendia iragartzen duten profeziok barreiatuta daude Guy Debord-ek ‘espektakuluaren gizartea’ deitutako hartan bezala. Bestela esanda, munduaren akabera iragartzen duten albisteak kontsumitzen ditugu ikusle bezala. Hondamendizko mezuak ikusi eta entzuteak hunkitzen du horroreari diogun maitasuna, eta fenomeno hori Public Policy Research institutuak ‘climate porn’ bataiatu du, porno klimatikoa”.

Hizkera katastrofista berenganatu dute kazetariak gain filmen egileek eta klase guztietako aktibistek. Politikariak ere gero eta gehiago. Planeta hondamendi ekologikora eta gizartearen suntsipenera doala dioten mezua erakargarria da Hollywoodeko ekoizleentzako baina baita “berde” karneta erakutsi nahi duten politikariarentzako ere.

Josafateko zelaiaaren kontuak eta gainera etorriko zaizkion kataklismoen aipamenak betidanik entzun eta esan ditu gizakiak, bai behintzat tradizioaren zati handia juduen eta kristauen erlijioei zor dizkien Mendebaldean. Ildo horretan, Azken Juizioaren ideiak fededunari onarpena eskatzen zion, hartatik eskapo egiterik izango ez zela koan, eta urrutiago joanez, egun hura desiratu egin behar zuen. Baina orain iragartzen diren apokaliptiek oinarri materialagoa dute sustrai, eta iragarpen apokaliptikoak fededunari bizi berria iragartzen bazion, gaurko katastrofismoak herritarrak paralizatu egiten du.

XXI. mende hasieran komunikabideek ez dute aurreikusten hilen piztuerarik, ez eta gizaki edo gizarte berriaren sorrerarik. Orain erakusten dute munduaren hiru laurdenetan ingurumena krisian dagoela eta dagoeneko horren zantzuak nabaritu direla. Zientzialarien kalkulu eta mezuak berresten dituzte albisteok. Panorama beltz horren aurrean, ordea, herritarraren erreakzioa oso ahula da, birziklapen ahalegin

Klimaren aldaketa eta beroketa globalaz diharduten kronikak ilustratzen dituzten irudi tipikoetakoak: usina bateko tximiniak ke kutsatua dariela ke gehiagoz eta lainoz betetetako ingurunean. Zineman katastrofezko filmek atal berezia osatzen duten moduan, hedabideetan ere kronika eta irudi apokaliptikoak genero izatera iritsi dira. Besterik da ea herritarren erreakzioren bat lortzen ote duten larritasunez betetako mezu horiek ala benetan ikuslea blokatuak uzten duten. Katastrofe arriskuek galdera ugari pizten dute, egoeraz, irtenbideez, eta beste. Baina funtsezko galderen inguruan gogoeta egiteko ordez komunikabideetan espektakuluaren logikak hartu du gaina, ikusleak izuikararekiko duen harreman paradoxikoari etekina ateratzen nahian.

batzuk eta gutxi gehiago. Nola ulertu?

Stefan Skrimshirek bildu ditu adituaren artean desfase horretaz eman diren arrazoiak. Batzuek diote arazoa hain handia izanik jendeak deskonektatu egiten dutela eguneroko bizitzan, planetak bizi dituen arrisku izugarrien aurrean norberak egunero zer egin dezakeen aurkitu ezinik. Beste batzuek espektakuluaren gizartearen dinamikan dakusate oinarria: herritarrak beldurrezko filmari bezala erreparatzen diola *Teleberriari*.

### Txarrena gelditu, iritsitakoari egokitu

Mezu katastrofistak ikusi ondoren herritarrak segi dezake eguneroko bizian deus gertatu ez balitz bezala baina giza taldeek erreakzioak erakusten dituzte. Eta ez beti aurreranzkoak.

*Tyndall Centre for Climate Change* erakundeko aditu batek idatzi du: “Katastrofe bezalako mezuak gizarteak makurtu dezakete erantzun ezkor, depresiozko eta erreakzionarioetara”. Klimaren aldaketan “atzerabiderik gabeko puntura” iristen ari garela esaten denean, horrek gehienengan ikara eragiten du.

Ikarak paralizatu egiten ditu gizabakoak. Hondamendiz betetako hizkerak, Hollywoodeko estilokoak, ez du argitzen ez nor garen eta ez nora goazen. Ondorioz Skrimshireren ustez “horrek eramaten gaitu gainetik ditugunei botere handiagoa ematera,



boteretsuek kontrol politiko, teknologiazko edo militar handiagoa edukitzea eskatzen dutenean”.

Beraz, komeni da ala ez albisteak eta analisiak eskaintzean gordin mintzatzeta? Komunikatzaile eta militante askoren ustez bai, egoera latza delarik mezuak ere katastrofikoak izan behar duelakoan gizartearen gain eragina izatekotan. Beste batzuek alderantzizkoa uste dute, nahikoa gogorra badela klimaren aldaketaren egia gaineratik hori sentsazionalismoz jatzeko.

Zein hizkera erabili erabakitzen erraza ez da. Gaia berez konplexua baldin bada komunikatzaileek berek ondo ulertzeko, are zailago zaio herri-tarrari bere osotasunean konprenitzea. Adibidez, arazo bat “une kritikora” heldu dela esatean, zertaz ari gara?

Etikaren aldetik ere badira erantzun beharreko kontuak XXI. mende hasieran iragartzen diren katastrofeetan. Zer da eta non dago kokatuta “atzerabiderik gabeko” unea? Giza espeziea arriskuan egongo denean ala planeta-ko espezie gehiago sartu behar dira kalkuluan? Nork erabakitzen du non kokatu une hori? Nork eta zein irizpideren arabera erabakitzen du gaiak zein eragin politiko duen?

“Gaur egun zein egoeratan gauden uste dugun –idatzi du Stefan Skrimshirek– funtsean etika kontua da, ekintza horretan oinarrituko da eta. Horrek berekin darama hondamendia saihestea baina baita ere hondamenditik salbatu nahi dugun ‘bizimodu ona’ zer den argitzea”. Ez da erraz erabakitzea zer den “ondo bizitzea”.

Eztabaidaren beste ildo bat erantzuna norberak edo taldean emateaz da. Batzuek azpimarratzen dute hondakinak birziklatzea eta kontsumo urriagoko lanparak usatzeta. Aldiz, beste batzuek zuzeneko talde ekintza aldarrikatzen dute multinazionalen kontra. Mendebalde aberatseko militanteen eztabaidetan maiz ageri den eztabaida da. Baina gainera klimaren aldaketatik aurreikusten da milioika pertsonak galduko dituztela etxeak eta lurrak munduan, eskualde zabalak baliabiderik gabe geratuko direla.

“Beranduegi da” entzuten eta irakurtzen da sarri. Baina beranduegi zertarako eta norentzako? Gizakiak suntsiketarik salbatzeko? Bakar batzuen bizi maila mantentzeko? Planetari bere osotasunean beroketa globalak eragingo dizkion ondorioz kaltegarrienak gutxitzen ahalegintzeko? Mezu katastrofista sinpleen azpian datzaten galderak dira.

Horien erantzunaren arabera izango da herritar bakoitzaren erantzuna. “Planeta salbatzeko X urte baizik ez dugu” bezalako titularrek ezkututzen baitute gauza asko egin daitekeela, eta egin beharko dela. Ziurrenik, dio Krimshirek, ez dago atzera bueltarik gabeko puntu bakar bat, puntu asko baino. Ekosistema ahul askorentzako puntu hori bat zen eta dagoeneko joana. Gauzak gaizki daudela? “Saiatu behar dugu alde batetik gerta daitekeen txarrena leuntzen, eta bestetik dagoeneko gainean dugunera egokitzen”. ■

[www.argaia.com/nethurbil.php](http://www.argaia.com/nethurbil.php)  
helbidean, gai honi buruzko informazio  
gehiago eta Interneteko loturak.



**Konfiantza  
delako  
garrantzitsuena**

---

Egunez egun  
zure konfiantza  
geureganatzen dugu,  
etengabe produktu  
berriak eta  
zerbitzu berriak  
bilatzearen bidez.

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Herran/ Kalea - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL: 943 420 624

G A R R A N T I A